

Nafar hizkuntza

euskera@diariodenavarra.es

Georgie Dann Nafarroako konkistan

'Nafarroako Erresumako Kronika ezZinezkoak' izenburuko liburua argitaratu berri du Mikel Zuza Viniegrak Pamiela argitaletxean. Bertan, Erdi Aroko Nafarroari buruzko hogeitalau kontakizun idatzi ditu, errealitate historikoa eta fikzioa nahasiz, eta umoreari tarte bat eginez.

ION STEGMEIER
Iruñea

VIANAKO printzea zezenetara doa. Zuriz jantzia, noski, baina gerrikoa eta lepokoa urdinak daramatza, bere aitaxi-amatxi —Frantziako errege-erreginen— ezaugarri gisa. Ogitartekoak, ardoa eta lagunak ez dira falta. Ezta ongi pasatzeko asmoa ere. Zezen plazan On Joan erregea ateratzen da tribunara eta ikaragarritzko txistualdia jasotzen du. Eta ikusle talde bat abesten hasten da:

*"No tengo trono ni reina,
ni nadie que me comprenda,
pero sigo siendo el rey.
Una piedra en el camino
me enseñó que mi destino
era rodar y rodar..."*

Karlos printzea hori entzun eta iruditzen zaio kanta horrek zerikusirik handia duela berarekin, baina ez, hori ez da tristeziatarako une egokia.

Horrelakoak dira Mikel Zuza Viniegrak asmatu dituen *Nafarroako Erresumako Kronika ezZinezkoak*. Nafar erresumaren historia eta umorea uztartzen dituen *sui generis* lana. Hogeitalau istorio bildu ditu Pamielak argitaratu duen liburuan.

"Iraganaren egituretatik ihes egiten saiatu naiz", dio egileak. Hala, pertsonaiak Paveseri buruz egiten dute hitz, adibidez. *Mad Max* pelikula agertzen da, Georgie Dannen *La barbacoa* abestia entzuten da edo SSKo naziak agertzen dira, orduko nafar errege, erregin eta garaiko protagonisten alboan. Teobaldo erre-

geak, esaterako, Tijuana in blue entzuten du.

Anakronismo asko sartu ditu nahita Zuzak. "Istorio asko gertaera zehatz batekin hasten dira, baina bukatu... auskalo", azaltzen du egileak. Hainbeste nahastu ditu errealitatea eta fikzioa ezen nekez bereiziko duela irakurleak zer den gertatua eta zer asmatua.

"Kronikak benetakoak dira, esaten duen gehiena da egia, baina alde batetik asko du egiatik, eta bestetik fikziotik ere bai", dio Zuzak. "Utziguzue amets egiten, pentsatzen hala izan zela", dio Fernando Rey itzultzaileak (kontakizunak gaztelaraz idatzi baititu Zuzak).

Pamiela etxekoek, seguru aski Nafarroako konkistari buruz liburu gehien argitaratu dutenak izanik ere, ohartu ziren hutsune bat zegoela konkistari buruz literatura arloan. Eta ikusi zuten Mi-



**NAFARROAKO
ERRESUMAKO KRONIKA
EZ-ZINEZKOAK**

Egilea: Mikel Zuza Viniegra.
Argitaletxea: Pamiela.
Orrialde kopurua: 124.
Tirada: mila ale.
Salneurria: 11 euro.

kel Zuzaren lanek ongi betetzen zutela paper hori. Horrela jaiotzen ezohiko liburu hau.

Itzulpena, lehenago

Bitxia da liburua, baita ere, itzulpena argitaratu delako originala baino lehen. Zuzak kajoian zituen hainbat istorio, eta bere blogean ipini zituen. *Crónicas irreal del Reyno de Navarra* deitzen ziren. Hau ez da hura zehatz-mehatz. Hark 8 istorio batzen zituen; honek, 24, eta ezberdinak. Jadanik, 200 baino gehiago idatzi ditu berak ideia honi jarraituz.


Batzutan mendira irtetean edo txangoetan bururatzen zaizkio, bertako burutapen bat *erdiarotuz*. Izagaondoa edo Ibargoiti bezalako bailaretan, adibidez.

Bera, dena den, historia arlotik dator. Mikel Zuza (Iruñea, 1970) Geografia eta Historiako lizentziaduna da, eta liburuzaina da gaur Nafarroako liburutegi publikoaren sarean. Gehien gustatzen zaiona Ertarokoa da, hain justu ere 1512 urte famatuak apurtzen duen Nafarroa hura. "Historiagilea naiz, Nafarroako historiari buruz ahal dudana guztia irakurtzen dut", azaltzen du. "Gertatzen dena da aspertu egiten nintzela eta literaturara egin nuen salto, baina atzeko historiko kontuak zehatzak dira".

Fernando Rey izan da itzultzailea. "Gutxitan gozatu dut hainbeste lan bat itzultzen, asko disfrutatu dut, eta asko ikasi behar izan dut", esan zuen Reyk. Berak onartu zuenez, "luxu" bat da idazlea alboan eukitzea.

Erronka izan da beretzat jatorrizko tonu hori nola eman euskaraz. "Umorea, ironia, gizatasun handia darie testuei", azaltzen du. "Polita da imaginatzea historia bestelakoa izan zitekeela".

Beharbada gauza sinistezinez justu benetan gertatu zirenak dira. Luis Autin 1307an etorri zenekoa, adibidez, hamasei urtekin Nafar koroa hartzera eta patzarana deskubritu zueneko.



Mikel Zuza, bere liburua eskuan duela.

JOSÉ CARLOS CORDOVILLA

'Gartxot' filmak irabazi du Bordeleko animazio zinemaldiaren saria

DN. Iruñea

Gartxot pelikulak Luzemetrai Onenaren saria jaso du Bordeleko *Les Nuits Magiques* zinemaldian. Animaziozko nazioarteko zinemaldi honetan, publikoa da sarituak hautatzen dituenak. Festibala abenduaren 5etik 18ra ospatu zen Frantziako hirian. Asisko Urmenetak eta Juanjo Elordik zuzendutako filmarekin batera *O'Apostolo*, *Arrugas*, *Le voyage de M. Crulic* eta *Jean de la lune* filmeak ziren sarigai. Arturo Campionek 1917an idatzitako Itzaltzuko bardoaren kondairan oinarritzen da *Gartxot*.



Gartxot-eko irudi bat.

DN

Bertsolarien gaitasuna, ikerketa artikuluetan irakurriena

Basque Research webguneak (www.basqueresearch.com) 2012an argitaratutako albiste irakurrienen hamarreko zerrenda prestatu du. Euskal ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren arloko 525 albiste argitaratu ditu Elhuyar Fundazioaren webguneak aurten eta 10.000 lagunek baino gehiagok irakurri dute BCBL zentroaren bertsolarien gaitasunaren inguruko ikerketari buruzko albisteak. Rankingean bigarren izan da Mutrikuko olatuen bidezko energia-instalazioaren inguruko Energiaren Euskal Erakundearen albisteak eta hirugarrena Euskal Herriko Unibertsitatearen saguzarren inguruko ikerketa bat. DN

Neguko abestiak, Nafarroako Bertsozale Elkarteak laguntzeko

Ene Kantak disko berri batekin dator. Bertan, neguko abestiek osatuta. Proiektuaren filosofiari jarraituz, Nafarroako Bertsozale Elkarteko dirua lortu nahi dute lan horrekin, D ereduako eskoletan eta ikastoletan bertsolaritzaren inguruan lanean segitu ahal izateko. Diskoa hainbat lekutan dago salgai, eta Nafarroako Bertsozale Elkartearen bertan eskuratzen ahal da. DN

Mikro ipuinen lehiaketak epea luzatu du urtarrilaren 31a arte

Euskara Kultur Elkargoak eta Pamielak antolatzen duten Mikro-ipuinen lehiaketak epea luzatu dute urtarrilaren 31a arte. DN.

Euskaltzaindiko argitalpenak salgai Paypal bidez

Euskaltzaindian bere webgunean eskaintzen dituen argitalpenak Paypal ordainketa sistema bidez erosi ahal izango ditu nahi duenak. DN

Ikastaroak eta aurkezpenak Biltokin

Itzulpen gintza eta testugintza ikastaroa antolatu dute urtarrean Biltoko elkarteak. Sormen tailerra astearteko elkartean 7etatik 9etara izango da. Bestalde irakurle taldea egingo dute urtarrilaren 11n 7etan. Erromeria dantzen tailerra, urtarrilaren 13an eta 27an izango da. Eta Xabier Amurizak *Zazpi ebidentzia birjaiotzarako* aurkeztuko du hilaren 18an, 20:00etan, beste ekitaldi batzuen artean. DN